

Harian

» **8 ■ LABek mezua bidali dio ELAri**
Borondatea badago indarrak metatzeko aitzakiarik ez dela esan dio LABeko Rafa Diezek ELAri.

Ikastolek erakunde nazional berria izango dute

Egun direnaz eta etorkizunean izan nahi dutenaz eztabaidatzeko prozesua zabaldu dute

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA
Bilbo

Egun direnaz eta etorkizunean izan nahi dutenaz hausnarketa sakona egingo dute ikastolek hurrengo hilabeteetan. Hobeto esanda, dagoeneko hasita daude lan hori egiten. Plenarioa izeneko talde batek —hainbat zuzendarik eta gurasoren batek osatua— gogoe-tarako puntu nagusiak eta proposamenak bildu ditu eta *Ikastolak. Orain eta Gero* izeneko dokumentua prestatu du. Hurrengo hilabeteetan, txosten horretan jasotakoa eztabaidatzeko dute, eta zuzenketak egiteko tartea izango dute ikastoletako kideek. Azken dokumentua datorren ekainean egingo den Ikastolen VI. Batzarra onartu beharko du.

Barne antolaketa eta ikastolen izaera eta arlo didaktikoa jaso dituzte Plenarioak prestatutako dokumentuan. Horrekin batera, jarritako helburuak betetzeko plan estrategikoa ere (2014. urtera artekoa) jaso dute, lehentasunak zeintzuk diren ondo zehaztuz.

Barne antolaketan daude alda-keta nabarmenenak. Besteak beste, ikastola guztiak bildu eta ordezkatzeko dituen nazio erakunde berria sortu nahi dute. Ikastolen izaera bereziak eta Euskal Herriko izaera administratibo zatikatuak behartuta, hainbat erakunde daude ikastolen kolektiboa ordezkatzeko. Erakunde saltsa horretan galdu egiten dira asko, kolektibo-koak bertakoak zein kanpokoak; hau da, leihatila bakarra izango da. Ikastolen kolektiboa bera kudeatzeko eta zerbitzu komunak zuzentzeko ardura izango du erakunde nazional berriak, eta Elkargoa izena hartuko du oraingoz.

Izaerari eta arlo pedagogikoari dagokiena Ikastola 2020 atalean bildu du Plenarioak. Orain arteko izaerari eutsiko diote ikastolek: hau da, ikastola bakoitzak bere ti-

tularitatea izango du, eta horrek eragin zuzena izango du ikastetxe bakoitzaren autonomian. Hala ere, curriculum komuna izango dute guztiak. Ikasleari oinarritzko gaitasunak ematea izango da helburua: ikasten, pentsatzen eta komunikatzen ikastea, besteak beste. Hezkuntza euskalduna eta humanista eskainiko dute euskaldunek, eta euskaldun izaeratik ingurua eta ingurukoak errespetatzeko dituen ikasleak izatea jarri dute helburu.

Hauk dira *Ikastola. Orain eta gero* txostenaren puntu nagusiak:

Antolaketa kolektiboa. Elkargoa

Ikastolek barne antolaketa nahasgarria dute egun, bai kolektiboaren kide direnentzat eta bai kanpokoentzat. Hainbat arrazoi historikodaude tartean, baina Euskal Herriaren egoera administratibozati-tuak eta ikastola bakoitzaren izaera propioak zerikusi zuzena dute horretan.

Azkenengo urteetan, ikastolen kolektiboak hainbat urrats egin dituzte barne antolaketa egokitze alde-ra. Hala, Ekonomia Intereseko El-karte Europarra izaera juridikoa hartu zuten, ikastolek nahi duten egitura lortzea bideratuta.

Egun, zazpi dira ikastolen kolektiboa ordezkatzeko erakundeak: Arabako Ikastolen Federazioa, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako ikastolen elkarteak, Seaska, Euskal Autonomia Erkidegoko Partaidea eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (EHIK). Horiek guztiak jarraituko duten arren, ikastolen kolektiboa bildu-

Erakunde nazional berrian ikastolak izango dira bazkide zuzenak, federazioak izan beharrean

Antolaketa arindu eta leihatila eta ordezkaritza bakarra sortu nahi dute, eraginkorrak izateko

Ikastolek betiko izaerari eutsiko diote, baina gari berrietara egokitutako irakaskuntza eskainiz



Irunberriko Arangoiti ikastolako ikasleak eta irakasle bat, ikasgelan, duela bi urte. JACOB MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

ko duen erakunde nazionala sortzea da helburua. Oraingoz, Elkargoa izena hartuko du erakunde berriak. Elkargoa sortuta, leihatila bakarra izango da, eta kanpokoek zein barrukoek nora jo jakingo dute.

Hauk izango dira Elkargoaren ezaugarriak:

EGITEKOA: Ikastolen kudeaketa eta ordezkaritza organoa izango da Euskal Herri osorako. Hau da, ildo estrategikoak definituko ditu eta ikastolen kolektiboa ordezkatzeko dute beste erakundeen aurrean. Ikastolek behar dituzten zerbitzu komunak kudeatzeaz arduratuko da, lurralde bakoitzaren berezitasunak errespetatuz. Ipar Euskal Herrian, lege eta administrazio alorreko berezitasunengatik, Seaskaren esku jarraituko dute gestio propioa behar duten zerbitzuak edo programak.

ALDERDI SOZIETARIOA: Lurralde bakoitzeko erakundeek edo federazioek dinamizatuko dute ikastola mugimendua. Federazioek eurek erabakitako eginkizunak izango dituzte, baina horiek erabiltzeko orduan Elkargoarekin hitz egin beharko dute, erakunde nagusia izango delako koordinatzailea. Federazioek

proposatu dituzte Elkargoan izango diren lurralde bakoitzeko ordezkariak.

ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA ORGANOA: Euskal Herriko ikastola guztiak osatuko dute Elkargoaren batzar nagusia, eta horrek bere gobernu batzordea hautatuko du. Gobernu batzordean ordezkari kopuru bera izango dute lurraldeetako erakundeek, gutxienez hiru bakoitzeko. Gobernu batzordeko kideek aukeratuko dituzte Elkargo-ko lehendakaria eta zuzendaria. Zuzendariaren lana izango da Elkargoak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak kudeatzea.

BAZKIDEAK: Ikastola guztiak izango dira Elkargoko bazkide. Batzar nagusian botoa eman ahal izango dute, duten ikasle kopuruaren arabera.

Ikastola 2020

Orain arte ikastolek izan dituzten ezaugarrietatik abiatuta, 2020. urtean ikastolak zer izango diren definitzen da, gaur egunean eta etorkizunean gizarteak izango dituen ezaugarriak kontuan hartuta.

IKASTOLA BAKOITZAREN IZAERA: Ikastola bakoitzak bere izaera propioa

izaten jarraituko du. Lege nortasun propioa duen eskola-entitatea izango da; hau da, ikastola bakoitzak bere titularitatea izaten jarraituko du. Ikastola kooperazio bidez kudeatutako erakundea da, eta beste ikastolen kolektiboarekin solidarioa izango da. Era berean, eta zentroari autonomia emate aldera, ikastola bakoitzak bere hezkuntza proiektua izango du. Curriculum eta hizkuntza oinarri bera izan arren, zentro bakoitza inguruko ezaugarrietara egokituko da, dauden beharriaz ere hobeto erantzun nahian.

IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN IZAERA: Ikastola titularren hezkuntza sareak osatzen du ikastolen kolektiboa. Era berean, kooperazio bidez kudeatutako erakundea da ikastolen kolektiboa, eta zerbitzu kolektiboak ditu. Betiere, ikastolen kolektiboak Euskal Herriarekin identifikatzen du bere esparrua.

OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNA: Ikastolak 1990. urtean hasi ziren curriculum komunaren oinarritzko osagaiak zehazten. Curriculumaren oinarriak ondo zehaztuta daude dagoeneko. Ikasleak bere biografia besteekin batera erakitzeko duen subjektu autonomo gi-